

Hezkuntza Gasteizen XIX. mendean

Jaione Agirre García
Eusko Jaurlaritzako bekaduna / Historian lizentziatua

Aro Garaikidera sartzearekin batera ezarri zen hezkuntza tradizionala (sexuz desberdindua), baina irakasleen prestaketa eskasa zen eta eskaintzen zitzaion dirua urri. Honekin, hiritarrak gizartean zeukaten lekuan integratzea bilatzen zen. Araban, eta beraz Gasteizen, garairako alfabetatze-maila altuak lortu ziren testuinguru honetan.

Traditional education is established in the beginning of the Contemporary Age. Sexual difference as far as education is concerned, poor training for teachers and short resources are the basic characteristics. The aim was to integrate each person in their own social sphere according to their origins. In Araba, and also in Gasteiz, literary levels were very high in this context.

“La letra,
con sangre entra”.

«aquella curiosidad, á veces importuna, que se nota en ellos, no me parece otra cosa que un deseo de saber impreso por la naturaleza» (Ibáñez de la Rentería, J.A., 1790, *Discursos...*, Pantaleón Aznar inprimatzailea, Madril).

1. Hezkuntza Gasteizen XIX.ean

1.1. Hastapenak XVIII. mendean eta XIX. mendea transizio-unea

XVIII.ean hezkuntzaren beharraz hitz egingo dutenak ilustratuak dira. Elkarte Ekonomikoetatik hau bultzatzen saiatuko dira eta honen eredu *Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea* da. Araudian bertan agertzen zuten hezkuntza bultzatu beharra, jende prestatua lortzeko eta honela humanitate eta letrez gain, zientzia berriak bultzatu zituzten. Adibide gisa Bergarako *Real Seminario*-aren sorkuntza eta partaideek egindako ikerkuntzak aipa genitzake. Ez dugu ahaztu behar euskara bera ere bultzatzeko asmoak azaldu zituztela, garrantzia emanaz hizkuntza lantzeari.

Pentsa daiteke, gehiegi erratu gabe, XIX. mendean liberalek hauen bidea jarraitzen dutela eta populazioaren hezkuntza eta alfabetatzea bultzatu beharra ikusten dutela. Zailtasun ugariarekin bada ere, mende osoan zehar eragingo du joera honek (arrakasta gehixeago edo gutxixeagorekin), geroko hezkuntza modernorako bidea markatuz. Hori da trantsizioa: hezkuntza sekularizatuz doa, orokortuz eta zabalduz (gaietan zein gizarte-taldeetan), zailtasun ugariak eta bilakaera (agian garapena baino egokiago) ez-lineal bati lotuta doala ahaztu gabe.

Honekin populazioa egoera politiko berrira eta modernizazio ekonomikora prestatzea bilatu nahi zen; edo gutxienez erdi-mailako klaseak, herriari gutxienezko alfabetatzea ematea oraindik nahikoa izango delarik helburu gisa (teorian orokorki hitz egiten duten arren). Emakumearen hezkuntza ere bultzatzen hasiko da, baina bazterturik dago ia eta bere sexuari “egoki” zaizkion ekintzetan heziko da betiere, egiten denean.

Gertakariak hartzen baditugu, politikak eragin handia izan zuen hezkuntzan. Batetik, gorabehera politikoek boterean zeudenen nahiak inposatu zituztelako, eta bestetik, bertako egituren frenoak ere parte hartu zuen (foruek eta gero geratu ziren administrazio-gestiorako indarrek). Honela, ilustratuen eta liberalen arteko tartea (baita hezkuntzan ere), bi mendeen artean gertatutako guduak izan ziren. Konbentziokoak ilustratuen lana geldiarazi zuen (beste neurri askorekin batera, Ilustrazioa moztea Frantziako gertakizunek sortarazi zuten beldurragatik gertatu zen) eta Independentziakoak bidea eman zion XIX.ean hartuko ziren neurriei Cadizeko Korteetako saio liberalaren bitartez.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen desagerpena kolpe gogorra izan zen. Eta Karlistaldiek kalte egin zioten kulturari, baina lehen-mailako ikasketek irautea lortu zuten guduaren erdian. Hala ere, istiluak ugariak ziren, Gasteiz liberala zelako eta probintzia aldiz, *realista* lehenengo Hirurtekoan eta gero karlista gehienbat.

Denborarekin kultura ere suspertu egin zen (ekonomikoki estankamendua nabarituagatik), mende erdialdera "la Atenas del Norte" ezizena irabazi zuelarik Gasteizek. Hala, erakunde kultural ugari joan ziren sortzen: 1840an irakurketa kabinetea (liburutegian 3.000 bazkide zituena), *Círculo Vitoriano* 1854an, 1866an *Ateneo Científico, literario y artístico*-a (unibertsitate, seminario eta institutuko irakasle asko zelarik partaide, 100 bazkide lortuz berehala), musika eta antzerkiko *Liceo*-a, *La Minerva*. Egunkari ugari eta kasinoak, baina agian sakabanatuegia zegoen lana hainbeste erakunderen artean (San Cristoval 1983). Beste elkarte ugari ere baziren: *Sociedad Cervantina*, elkarte literarioa (1873, Fermín Herránek sortua); *Joven Exploradora*, geografia eta bidaien inguruan, *Sociedad Viajera* eta *Exploradora*-k jarraituta; *Academia de la lengua Bascongada* (1877), Becerro de Bengoak eskatua; *Centro Literario Vascongado*, Euskal Herriari buruzko lanak argitaratzeko; *Academia Alavesa de Ciencias de la Observación*, natura aztertzeko, eta *Academia de Ciencias Médicas* (1873). Eta beste asko.

Egunkariak ere ugariak izan ziren, bizitza laburrekin, baina beti zegoelarik politikaz edo literaturaz ari zen baten bat (*El correo de Vitoria* liberala Independentzi guduaren; *El Porvenir alavés*, 1865etik eta *El fuerista* 1867tik; satirikoak *La guindilla*, *La gaita*,...; politikan Becerro de Bengoak bultzatuta *El mentirón*, 800 harpidetza izatera heldu zen; zientzia arloan Fermín Herránen *Revista Bibliográfica*, etab.).

Aldi honek eman zituen pertsonaiak ondokoak izan ziren: Ricardo Becerro de Bengoa kazetaria; Fermín Herrán, kultur gizona; Jose de Rouse; Manuel Iradier esploratzailea; Ladislao Velasco politika zein kulturaren, Eulogio Serdán bezalatsu; Ramiro de Maeztu idazlea.

Tertuliak ere baziren: 1840etan Ayalatarren etxean, Mujikaren jostundegi ostekoa...

Dena den, mende-bukaera aldera beherakada kulturala gertatu zen (Erres-tauraziotik nabaria). Gustavo de Maezturen hitzetan iparraldeko Atenasetik, «rancho y agua bendita»-ra aldatu zen (Rivera 1992). Honen arrazoiak, aurretik aipatu-tako belaunaldi kultuaren desagerpena, hirugarren sektorearen garapena (militar eta apaiz ugari), apaizgoaren eragina gehitzea eta erreakzionarioen haztea lirate-ke ustez, lokalismo eta kontserbadurismoa handitzea ekarri zutelarik (Rivera 1992).

1.2. Hezkuntza-legediak: gobernuaren eragina, araudiak eta irakaskuntza metodoak

Estatutik emandako legeek eragiten dute, haren esku jartzen denez, hezkuntzaren ardura. Aurrez gehiena pribatua zen eta XIX.ean eskola publikoak sortuz doaz pixkanaka, absolutistek ere mende-hasieran ardura hartuz hezkuntza-

ren inguruan. Beraz, Madrileko erabakiek eragin egingo dute, baina betiere foruen onarpena mantendu beharko dute, hauek ziren bitartean. Borroka izango da Elizaren eta estatuaren artean, ideologiaren kontrolari eutsi nahi baitio lehenak. Orokorki 1857ko *Moyano legeak* markatzen du zatiketa mendearen barruan. Gainera fakzio politikoek batak egina besteak kentzeari ekingo diote sarritan.

José Bonaparte errege egin zutenean, martxan jarri zituen aurretik bazebiltzan hezkuntza-zentroak eta horien artean garrantzitsuenak *liceos provinciales* deritzatenak dira mutilentzat, neskentzat etxe bereziak ere zabalduz.

1812ko Konstituzioak artikulua bat eskaintzen dio umeen hezkuntzari. Bertan behartzen zen herri guztietan «escuelas de primeras letras» jartzea, umeek irakurtzen, idazten eta dotrina kristaua ikas zezaten, betebeharrak zibilekin batera. Hala, 1830erako idazten ez zekienari eskubide zibilak kentzeko asmoa zegoen, herritarrek kontzientzia hartzeko baitzen hezkuntza. Honetarako guztirako, hezkuntza uniformatu beharra ikusten da (arauak, metodoak, ikasketa-planak) lehen konstituzioaren garaitik bertatik, aldi berean doan eta publikoa izan behar zen Quintanaren informearen arabera; *Comisión* eta *Junta de Instrucción Pública* baten bitartez egingo zen, beti ministerio berrien menpe: *Interior*, *Gobernación* edo *Fomento*. Finantzatzeko, desamortizazioko eraikin hutsak erabiliko ziren.

Baina Fernando VII.a itzultzean sarrera eskasak argudiatuz utzi egin zen plan hau eta Elizaren eskuetara itzuli zen hezkuntza, doan ihardun baitzezakeen (Calomarde ministroak, eskolapioena bezalako ordenak bultzatuz eta nekazari-munduan apaiz eta sakristauek¹); noski ministerioan lehengo *Gracia y Justicia*-ra itzuli zen.

Hirurtekoan, 1821eko *Reglamento de instrucción pública*-rekin berreskuratu zen Cadizeko proiektua: hezkuntza lehen, bigarren eta hirugarren mailatan bereizi zen, eskola publiko zein pribatuetan (estatuak kontrolatuz irakasten zena eta mailatik mailara igarotzeak); gainera 100 biztanlez gorako herrietan eskola jartzera behartu zen. Bigarren hezkuntza, hirugarrenarako prestaketa eta lanbide-heziketa tartean zegoen.

Baliabideak eskasak ziren, baina arazoak konpontzeko astirik ez zen izan, berriz Fernando itzuli baitzen. Elizak berriro hartu zuen bere gain eginkizuna, baina formalki egitura liberalari eutsi zion 1825eko *Plan y Reglamento de escuelas de Primeras letras del Reino*-n, eskolak jarri beharra 50 biztanletik gorako herri denetara zabalduz gainera. Bigarren mailako eskolen plana egitean, hirugarren mailarako prestaketa eran geratu ziren soilik. Plan hau egiten hasteko asmoak dagoeneko 1815etik agertu zituen bere legeetan²; bestalde 1824an erregeak aginte osoa berreskuratzean, subertsiboen garbiketa egin zuen “kurazio junten” bidez, liberalak postuetatik kentzeko eta zin egiten zutenei soilik onartuz Hirurtekoan

1. Adibidez, Archivo Municipal de Vitoria (A.M.Vi.) 5-22-16.

2. Ministro Junta eratu zuen horretarako: A.M.Vi. 5-22-15, Archivo Provincial de Álava (A.P.A.) DAH 131-1 eta 131-2 eta 1258-32; Sancho el Sabio Fundazioa, *Por el Excmo Sr Secretario de estado (...) se han comunicado (...) Reales ordenes (...) crear una Junta de ministros que formase un plan general de estudios (...)*, 1824.

emandako tituluak (eta ez besteei)³.

Maria Kristinaren Erregentziak Montesinoren metodoa hedatzea dakar, ikastea abestuz egiten delarik eta ariketa fisikoak hedatuz, baina azkenerako monotono eta ezgauza bihurtu zen. 1834tik aldiz, *lancaster metodoa* hedatuko da, ikasle argienek besteei irakatsiz, maixuen laguntzaile eran; umeak ikastera bultzatzeko sariak ere emango dira. Maisu eta maistrak hezteko Eskola Normalak ere sortuko dira garai honetan.

1836an *Plan del duque de Rivas* jarriko da martxan. Askatasuna emango du irakaskuntzan eta hiru mailak, udal, diputazio eta estatu artean banatuko ditu finantzei dagokienez; gainera ikasleek ere ordaindu egin beharko dute ahal dutenaren arabera (bigarren mailara jada klase ertainak soilik iristea ekarriko du honek). 1838an gutxienez eskola ez-osatuak ("*incompletas*") jartzea onartzen zen (titulurik gabeko maisuekin), finantzazioa behar bezala ezin egin zen kasuetarako. Beti eskola falta egon zen, baina alfabetatugabeen kopurua gutxitu egin zen, hori bai, batez ere gizonen artean.

Madrileko juntak egindako eskakizunetan altxamenduak sortzean 1839-1840an boterea moderatuek hartu ostean, hezkuntza-sarea bultzatzea eskatu zuten, liberalismoa hedatzeko tresna bezala (Isabel II. erregina umearena barne, progresistengana hurbiltzeko asmoz).

1845ean *Plan Pidal*-ekin bigarren hezkuntza klase ertainentzako zela argiago agertu zen. *Consejo de Instrucción pública*-k tituluen eta irakasleen ardura du eta kontrola instituzio denetan (gainera ez dira onartzen unibertsitate pribatuak). Azken batean Rivasen plana apur bat zehaztu baino ez zuen egin.

Moderatuek Elizarekin 1851ko Konkordatoa sinatzean, eskola guztietan apaizek irakatsita, erlijio katolikoa onartu zuen gobernuak. Baina aurrez ere kontrol ideologikoaren boterea galdu gabe zeukaten (1847ko legea kasu). Hala, 1857an *Ley Moyano* egiten denean, estatu eta Elizaren kontrola ezartzen da eskolarekiko, monopolioa ukatuz bie. Elizak batez ere lehen eta bigarren hezkuntzan izango du eragina (seminarioen ugaltzea da adibiderik argiena). Hezkuntza gehiago berdindu zen neska-mutikoen artean, baina sexu-bereizketari eutsiz (gainera eskola bana egon behar ziren 500 biztanlez gorako herrietan); bestalde, beharrezko egin zuen eskolarizazioa 6 eta 9 urte tartean. 1880ko hamarkadatik ordena erlijioso frantses ugari etorri ziren Espainiara eta honen inguruan eskolak ezarri zituzten (marianistak, ursulinak...). Hau guztia, finantzatzeko zailtasunen aldetik ere azal daiteke, eskola primarioa udalen esku utzi zelarik eta bigarrena diputazioen esku. Erlijio-soei ez zitzairen titulurik eskatzen irakasteko eta horrek bidea erraztu egin zuen.

1868ko Orovioaren *Ley Catalina*-k Eskola Normalak itxi eta 500 biztanlez beherako herrien eskolak parrokoen esku utzi arren, 1869ko Konstituzioak askatasuna ematen zuen eskolak irekitzeko (*Ley de Libertad de enseñanza*-z eta

3. Sancho el Sabio Fundazioa *Real Cédula de SM y Señores del Consejo en la cual se fijan las reglas (...) para que se restituya (...) la sana enseñanza (...) el abono o inadmisión de los cursos ganados (...) Gobierno institucional, 1824.*

Ruiz Zorrillarenaz). Honek maisu eta maistrak berdindu egin zituen, baina 1869ko Konstituzioa beteko zutela zin eginarazi zitzairen, nahi ez zutenak botaz, kontua emanik bada ere (eta beraz, ordurarte zor zitzairen soldata ordainduz)⁴. Krausismoa bezalako ideologiek hezkuntzaren hedapena bultzatu zuten, gizartea aldatzea pentsatzen baitzuten gizabanakoan oinarriturik eta hezkuntza tresna zela. Emakumeen hezkuntzari garrantzia ematen zaio eta gizonenarekin parekatzen saiatzen dira. Bestalde, 1880ko hamarkadatik irakaskuntza tekniko eta zehatzagoak bultzatzen dira (telegrafoetakoa...). Errestaurazioan zentralismoa itzultzen da, baina autonomiari eutsi zion probintzietan planetan eta irakasleen formazioan.

Orokorki 1857tik aldaketa ugari daude baina oreka ematen zaio hezkuntzari (Artola 1988). Romanones-en legea iritsi arte itxaron beharko da maisu-maistren soldatak, besteak beste XX.aren hasieran Estatuaren aurrekontuetan agertzeko.

Diputazioek ahal zuten neurrian beren interesak zaintzen zituzten; legeak onartu egiten zituzten foruak hausten ez bazituzten, eta hala bazen protestatu egiten zuten⁵ (gero kontzertuekin ere saiatu ziren egiten, berez hezkuntza konpetentzien barruan egon ez arren), zentralismoa saihestu nahian (jada 1812ko Konstituziotik gertatua). Beti ez zuten lortu kontrako legea kentzea, baina gutxienez aplikazio-epeak luzatu zituzten. Honen adibide dira, maisu (1857) eta ikuskatzai-leen izendapenari (1849) eta eskolen mantenuari buruz (1868) egindako eskaerak eta 1859ko lege berezitua lortzea (esan nahi baita Moyano legearen aldean berezitua) (Dávila 1988), sarri diputazioen artean ere kontsultatuz egingo zena (esaterako 1869ko Konstituzioa zin egin beharraren inguruan maisuen aldetik, bestela bota egingo zituztelako⁶). Istiluak erraz sortuko dira bertako instituzioen artean, eraikinen banaketakoa bezala; bakoitzak hezkuntzaren gain zituen betebeharrak bereizi zirenean hasi ziren, 1880an, eta 1887 arte gutxienez ez ziren konpondu⁷.

Emandako *Reglamento*-ei dagokionez, mendean zehar hainbat daude baina gaietan eta metodoetan uniformitate handia erakusten dute:

XVIII.aren bukaeran jada, agertzen dira eskolak sortzeko planak: adibidez, 1783ko Real Cédula⁸, neskei bere sexuko lanak erakutsi eta mutikoei matematikak erakusten zizkiena; eskolak ezartzeko 1790eko plana⁹.

1825eko araudian eskolak 50 biztanleko jarri behar ziren eta bigarren mailakoak 1.000 biztanletik gora. Junten bitartez kontrolatzen da hezkuntza.

1838ko legearekin batera, Behin-behineko Araudia¹⁰ eman zen. Bertan eskola publiko nahiz pribatuei eusten zaie, publikoak herriek finantzatuta edo "obra pía" eta fundazioak ere barneratuz. Eskola "oinarrizko osatua" behar zen 100

4. Joaquín Estrada frantseseko katedradunarekin gertaturikoa da honen adibide. A.P.A. DAH 813-24.

5. Adibidez, A.M.Vi. 45-8-14 eta A.P.A. DAH 813-24.

6. A.P.A. DAH 813-24.

7. A.P.A. DAH 722-9.

8. A.P.A. DAH 140-26.

9. A.P.A. *Expediente de organización de escuelas...*, DAH 1952-11; eta A.M.Vi. *Organización de la enseñanza primaria*, sig C-25-16.

10. A.M.Vi. sig. 20-14-44.

biztanletik gorako herrietan eta ez bazituzten nahikoa biztanle, bildu egin behar ziren bat ezartzeko; 1.200dik gorakoetan, eskola goren bat behar zuten izan. Maisuek probintziako hiriburuan behar zen eskola normalean titulua izan behar zuten eta udalak aukeratzen zituen, baina buruzagi politikoaren baimenez. Komisio lokal bat egoten zen, probintzial baten menpe, aldi berean Gobernazio Ministerioaren menpeko zena, eskolaren funtzionamendua eta beharrak kontrolatzeko.

1857ko Programan eta 1855eko Arautegian¹¹ eskola-motak eta haien betebeharrak zehazten dira; aldi berean araudiaren garrantzia azpimarratzen da maisuen beharra agertuz, mahai gainean izateko. Bestela ez dago alde handirik aurrekoekin, zehatza izaten jarraitzen du eta aurrerago aztertuko dugu. Antzera 1873ko arautegiaz¹².

Orokorki administrazioa eta kontrola lokalki eta probintzialki egiten zen: komisio edo junten bitartez garaiaren arabera. Juntak 1827an eta gero 1857tik aurrera zeuden eta bitartean Komisioak. Funtziorantz ziren baina osaketan desberdintasunak agertzen zituzten: instituzio publikoetako ordezkariak eta apaizek osatzen zituzten, 1857tik eskoletako ikuskatzailea eta 1868tik gurasoak eta irakasleak ere sartzen direlarik¹³.

Eskola-kopurua eta eskatzen ziren baldintzei dagokionean, sarri ez ziren betetzen baliabide faltagatik (maisuen soldata eskasak, haien hezkuntza ere eskasa zen, eskolako materialak pobreak ziren...). Beraz, beti herriek egiten zituzten keak irakasle eta eskolen benetako baldintzekin konparatu behar dira¹⁴.

1.3. Eskolak

a) Motak

Batetik eskola publiko eta pribatuak bereizi behar dira. Gasteizen pribatuak gehiago ziren publikoak baino (1813an Villa Suson zegoen eskola bakarra¹⁵; Madoz-ek (1845) diosku publikoak mutikoentzat bi eta neskentzat bat zeudela), baina nekazari inguruan (Arabian, alegia) publikoak dira nagusi. Eskola pribatuetan erlijio kongregazioenak ziren nagusi: ursulinak, marianistak, korazonistak..., esan bezala, gehienak XIX. mendearen bukaeran etorriak, asko Frantziatik kanporatuak izatean.

Bestalde ikasketen arabera bereizi behar ziren. Batetik *“de primeras letras”* deituak umeentzat. Hauetan bereiz daitezke *“elementales completas”* eta *“elementales incompletas”*; ez-osatuak normalean titulaziorik gabeko irakaslea izaten zuen eta gutxieneko ikasketak ematen ziren (besteetan ere askoz gehiago ez irakatsi arren), hau da, doktrina, irakurtzen eta idazten eta lau erregela matema-tikoak. Normalean gainera ez-osatuak jartzen ziren besteak mantendu

11. A.M.Vi. sig. 37-25-24 eta 37-22-10.

12. A.M.Vi. sig. 20-1-31.

13. Ikus Reboredo 1995 eta A.M.Vi. sig. 45-8-14, 41-22-24; A.P.A. DAH 131-2.

14. A.M.Vi. sig. 5-22-6. Herrien keak: eskolak ez sortzeagatik multak ezarri ziren 1883an: sig. 53-13-26.

15. A.M.Vi. 5-23-37.

ezin zirelako eta, beraz, pentsa dezakegu maisuei gutxiago ordaintzen zitzaiela. Mende erdialdetik “parbulo”-eskola zegoen 3-7 urte bitarteko umeentzat¹⁶.

Horrez gain bigarren mailako hezkuntzan, Gasteizen Institutua zegoen. Hone-tan gizarteko maila ertainetakoak aritzen ziren batez ere (behe-mailatik inor ez zen iristen normalean). Parean *Escuela Normal de maestros de primeras letras* sortu zen 1840ko hamarkadan, gero maistrena ere bai (1856an), eta hauei loturik lehen mailako eskola bi zeuden maisu eta maistra izateko ikasten ari zirenek praktikak egin zituzten.

Domingo Aguirre Seminarioa ere ireki zen 1849an eta Gasteizeko elizbarrutia osatu 1862an, seminario diozesanoa ere bai.

Independentzi gudan eta Karlistaldian Oñatiko Unibertsitatea ere egon zen Gasteizen eta mende bukaeran “unibertsitate literario” bat sortzeko asmoa ere egon zen (1869ko legearekin gauzatu). Horrez gain musika akademia eta marrazketakoa ere bazeuden (azken hau *Escuela de Artes y oficios* bihurtuko zena).

Ez dugu ahaztu behar 15 urtetik gorakoentzat, eskola elementalean jada onartuak ez zirenez¹⁷, *Escuela de adultos* gau-eskola bazela Gasteizen; bestee-tako maisuek txandaka ematen zuten eskola hemen. Lan egiten zuten lantegiko nagusiak ziurtagiri bat eman behar zien langileak zirela egiaztatuz, ikasle eran sartu ahal izateko.

URTEAK		PUBLIKOA		PRIBATUA	
		NESKENA	MUTIKOENA	NESKENA	MUTIKOENA
1857 ¹⁸	OSATUA	13	13		
	EZ-OSATUA	102			
1860 ¹⁹	OSATUA	10	16	2	4
	EZ-OSATUA	166			
1873 ²⁰	HEDATUA	2	2		

1. Lehen mailako eskola-kopurua Gasteizen.

Eskola ahal zen lekuan jartzen zen, sarritan maisuaren etxean, baita kontzejuaren etxean edo eta elizpeetan ere (gero arautegiek leku babestuak izateko eskatu arren ikasteko baldintza egokiak izan zituzten ikasleek, 1838ko araudiak agertzen duen eran²¹). 1819ko dekretu batek adierazten digunez eskolarako tinta eta papera umeek eraman behar izaten zuten; gero aldatu egingo

16. A.M.Vi. 35-10-26.

17. A.M.Vi. 37-22-10.

18. A.P.A. DAH 1213-9, 1857ko irailaren 9ko legearen arabera.

19. A.P.A. DAH 1213-9.

20. A.M.Vi. 20-1-31.

21. A.M.Vi. 20-14-44.

da, neurria (irakasleek diru kantitate bat izan ohi zuten horretarako, koadernoak ahal zutenek erosten zituzten, baina gutxienez arbel bat izaten zuten besteek²²), pobreei eskolara joatea errazteko. Eskolaren garbitasuna beharrezkoa dela hasiera-hasieratik bultzatzen da eta maisuarena (adibide on bezala) eta ikasleena, hazteria bezalako gaixotasunak zituztenak ez onartuz klasean.

Mende-hasieratik (Verastegui 1829) bultzatzen da ikuskatzailearen figura (*visitador*, gero mendearen bigarren erdian *inspector*), eskolen egoera aztertzeke eta bere beharrak kontuan hartu eta eskatzeko (mahai berriak, arbelak...) ²³.

b) Maisu-maistrak

Irakasle gehienek prestaketa falta zeukaten; gehienek gainera ez zeukaten titulurik estatistiketan agertzen denez. Mende-bukaerako azterketa-dokumentu batek agertzen dizkigun hitzak oso gogorak dira («despreciables» da finena ia) ²⁴.

17 eskola	6 maistra:	2 tituludun
		4 titulu gabe
	11 maisu:	9 tituludun
		2 titulu gabe

2. Irakasleen kualifikazioa²⁵.

Gainera, aipatu behar da soldata eskasak zituztela (zati bat gainera espezie-tan kobratua, garitan edo garagarretan kasu batzuetan), batez ere herrietan. Ondorioz, sarritan beste ofizio bat izan behar zuten (sakristau, kanpajole –edo «tocar a temporal» gutxienez–, botikario, normalean bi lehenak) (cf. Lasa 1968, Landazuriren datuen arabera, XIX. mendean zehar heda daitezkeenak); 1818an eliztarrak behartu zituen erregeak irakasle izatera, diru eskasia zela eta²⁶; klase partikularrak ere ematen zituzten maisu-maistrek, galaraziak zeudenak eta ikuskatzaileek zaindu beharrekoak (1861eko komunikazio batean ageri denez²⁷). Soldata eskas horiengatik lan egiteko prest zeudenak gaixoak edo elbarritasunen bat zutenak (ez larriegia noski) izan ohi ziren, bestetarako “balio” ez zutenek. Soldata auzokoek ordaintzen zuten, herriak edo umeek ahal zutenean, eta askotarikoak ziren Lasak eskaintzen digun zerrenda zehatzean ageri denez (Lasa 1968); dena den, autore denak daude ados eskasa zela bizi ahal izateko. Normalean, eskolarako eraikina eta bera bizitzeko gela ere ematen zitzaion, hirian batik bat.

Ondorioz, zeukan omen eskasa soldataren arabera neurtzen zen eta hau altuxeagoa zen hirietan hobetzen zen izen on hori eta denborarekin maila ertaineko kide bihurtu ziren (bizi-mailak ezin parekatu arren). Soldaten eskasiak

22. A.P.A. DAH 1187-16; 1838ko behin-behineko arauditik hasita, A.M.Vi. 20-14-44.

23. A.M.Vi. 37-17-18; A.M.Vi. 5-23-37, non aipatzen den eskolen eta hezkuntzaren egoera eskasa zela XIX. mendeko bigarren hamarkadaren hasieran; gerora eskolen egoera ona agertzen zaigu.

24. A.P.A. DAH 1259-31.

25. A.M.Vi. 5-23-34

26. A.M.Vi. 5-22-16.

27. A.P.A. DAH 1835-3.

irakasleen etengabeko mugimendua ekarri zuen ondoen ordaintzen zuten lekuen bila²⁸. Hori bai, gutxi, baina garaiz ordaintzen zitzaien²⁹.

	LEHEN MAILAKOA		NORMALA	PARBULOAK
URTEAK	IRAKASLEA	LAGUNTZAILEAK	IRAKASLEA	IRAKASLEA
1790 ³⁰	10.000	1.ak 5.200 2.ak 4.200		
1813 ³¹	6.600	1.ak 5.400 2.ak 4.400		
1845 ³²	4.400		4.000-5.000	
1858 ³³				
1860 ³⁴	946,56			
1880 ³⁵	maisua: 8.250 maistrak: 5.500		maisua: 10.750 ³⁶ maistrak: 7,824,92	maisua: 9.940 maistrak: 9.940

3. Irakasleen urteko soldatak eskola publikoan Gasteizen (errealetan).

Beraz irakasle izateko zenbait baldintza bete beharra zegoen. 1771an udalak izendatzen zuen, barruti judizialeko buruaren baimenaz; aurkeztu ahal izateko, elizbarrutiaren azterketa gainditua behar zuen dotrinan, odol garbitasuna eta bizitza onekoa zela ziurtatu beharra zuen eta, gainera, irakatsi beharreko gaietan jakituna zelako azterketa ere gaindituta behar zuen.

Hala ere, askotan markatzen zen araudietan bertan maisuak bere gela zaindu behar zuela eta neskatiilen ikasgelak, bere emazteak edo zerbitzari batek gordetzen zuela; ikasketarik ez zuen behar horretarako eta soilik ahal zuenean eta mutikoen ikasketa galarazten ez zuenean gainbegiratu behar zituen maisuak³⁷. Orotara dena den, araua zen neskatiilen eskolan maistra egotea (edo maisuaren

28. A.P.A. DAH 169-18 (Reboredo 1992).

29. A.M.Vi. 5-22-6.

30. 1790-1797 tartean, A.P.A. DAH 140-26. XVIII. mendean Arabako herrietarako Landazurik egindako kalkuluetan (Lasa 1968): espezie eta dirutan kobratzen zuten, 2 eta 50 anega gari tartean (gehienez 8 edo 20 inguruan) eta 25 eta 1.000 erreale tartean (kasu berezi batean 200 dukat Zigoitiako Hermandadean, hots 2.200 erreale).

31. A.M.Vi. 5-23-37.

32. A.M.Vi. 5-23-34, hortik gutxi gorabehera 240 ikasleek ordaindua; partikularretan 600 eta 3.600 erreale tartean zeuden, normalena 1.200 eta 2.400 erreale tartean.

33. A.P.A. DAH 1478-8.

34. A.P.A. DAH 1213-9, 1860ko abenduaren 12an egindako kalkulua: orotara 194.044 erreale Gasteizen, 205 eskola egonik eta suposatuz eskolako maisu bakarra dagoela; Araban 342.155 erreale denera, 317 eskolarekin eta, egoera bera joz gero, 1.079,35 erreale bakoitzak.

35. A.P.A. DAH 1952-11, pezetetatik errealelara transformaturik.

36. Bere laguntzaileak 6.875 erreale eta maistrarenak 4.580 erreale.

37. 1838ko behin-behineko araudia, A.M.Vi. 20-14-44; 1855eko araudia, A.M.Vi. 37-22-10; 1857ko eskolentzako programa, A.M.Vi. 37-25-24; 1873ko lehen mailako eskolentzako araudia, A.M.Vi. 20-1-31.

laguntzailea mende-hasieran³⁸) eta mutikoenean maisua, eta neska-mutilenetan ere maisua.

Prestaketa hobetu egin zen 1838an *Escuelas Normales* hedatzen hasi zirenean Penintsulan, irakaskuntza-metodo berriak hedatzeko eta, baliagarria izan baitzen. Hasieran Madrileran bidaltzen ziren ikasleak³⁹ eta gero Gasteizen bertan sortu zen eskola. Batez ere emakumeenak ere sortzean (1856) maistrak formatzeaz gain (parbuloetako eskolak eta ez-osatuak haien esku utzi nahi zirelako (Reboredo 1992), hauentzat bigarren hezkuntza izan ahal izateko. Madrileko Kontseiluaren edo gero probintziaren azterketa ordez, hor ikastea eta praktikak egitea (emakumeentzat praktikena 1880an sortu zen) beharrezkoa izango da titulua lortzeko. Eskola Normalean igaro beharreko denborari dagokionez, 1845ean hiru hilabeteko ikasketak ziren beharrezko, 1848tik bi urtekoak eta 1849tik hiru urteraino igo zen.

Argigarria da neska-mutilentzako eskola ez-osatuetan maistra hobesten zela eta soilik hauek ez zeudenean hartzen zela maisua (1888ko lege baten arabera); ondorioz, Arabako herri askok mutikoen ez-osatua bezala inskribatzen zuten, hauetan maisuek soilik eman baitzezaketen eskola, benetan neska-mutilena izan arren, maistrarik nahi ez zutelako. Instituzio publikoek baimena eman zietela esan beharra dago⁴⁰.

d) Ikasleak

Normalean eskoletan neska-mutikoak elkarrekin egoten ziren, egokitzen ez bazen ere (Madoz 1845). Umerik gehienak eskola *elemental incompleta*-ra joaten ziren.

Neskatilek ikastea ez zen ondoegi ikusten. XIX.ean bultzatzen hasi zen (Madrilen 1783rako bazen⁴¹), baina oraindik uste zen idaztea gutxienez arriskutsua zela emakumeentzat (maitaleentzat eskutitzak egin baitzitezaketen!) (Lasa 1968). Ez zen beharrezkoa hezkuntza sakonegia izatea emakumeak; Emilia Pardo Bazán-en hitzetan, «educación de cascarilla» (Uribe-Etxebarria 1989). Hala eta guztiz ere, Araban eta Euskal Herri osoan, mutikoenen parean zebiltzan eskolaratutako nesken kopuruak (bai eta analfabetismokoak ere), eskola pribatuetara gehiago joaten ziren arren eta mutikoak publikoetara. Hori bai, irakaslea falta bazen edo baliabideak falta baziren, neskak ziren lehenak eskola uzten.

Ume ezinduen artean gormutu gutxi batzuk doaz eskolara bakarrik 1855-1860 tarteko txosten baten arabera⁴².

Umeek sarri huts egiten zuten eskolara (%20-40), batez ere nekazaritzan ari zirenek eta langileenek (artisansu zein beste gero), eta goiz ateratzen ziren lan egite-

38. 1819an adibidez: A.P.A. DAH 1187-16 = A.M.Vi. 5-22-15.

39. Sancho el Sabio Fundazioa, *Anuncio: Diputado General de esta MN y ML Provincia de Álava (...), nombramiento del alumno que (...) pase a (...) Escuela Normal (...)*, 1840.

40. Gamiz eta Bolibarren kasu, A.M.Vi. C-11-37.

41. A.P.A. DAH 722-9.

42. A.P.A. DAH 1213-9.

ko. Batez ere neskatilak ziren falta zirenak (zenbait txostenen arabera), etxeko lanetan aritzeko han agertzen denez⁴³. Honela 1857tik 6-9 urte tartean eskolara joatea derrigorrezkoa zen arren, asko ez ziren joaten. Ondorioz, 1855ean aipatzen da zegoen lekua baino % 10 gehiago matrikulatzea onartzen zutela, faltengatik tokia egoten zelako⁴⁴. Behin eta berriro dei egiten zaie gurasoei umeak eskolara bidaltzeko⁴⁵, baina baita irakasleei ere ordutegiak bete zitzaten (zuten soldataz zaila izango zen sarritan⁴⁶). 1859ko dokumentu batean aipatzen da alkateari eskatzen zaiola *celadores urbanos*-ek kalean aurkitutako *muchachos ociosos* eskoletara eraman zitzaten⁴⁷. Mende erdialdetik arautegietan zehazten da, klaseen herenera faltatuz gero ikaslea bota egin behar zela eskolatik⁴⁸; ez dakigu zenbateraino eragingo zuen edo beteko zen, huts egiteak ugariak zirenez...; isunak ere jartzen ziren (8 eginda hilean 50 zentimo 1872ko araudian⁴⁹, alguazilak eramanez etxera isunaren “*papeleta*”). Denera umeak eskolan onartzeko adina 5/6-13 tartean ze-goien (salbuespenekin), besteek molestatu besterik ez zutela egiten uste baitzen (bai txikiagoek bai helduagoek).

1871n eskaera bat agertu zen Landerretxetik tornuko umeak 7 urte arte parbuloen eskolan sartzeko eta onartu egin zen, ordurarte ezin baitziren ezertan aritu eta hezkuntzarik gabe etorkizun eskasa izango zutela zekitelako⁵⁰.

URTEAK	AZTERKETA	MAISUA	BATXILLERRA	PERITOA	LIZENTZIATUA	DOKTOREA
1807 ⁵¹	100					
1822 ⁵²						
2. hezkuntzan:	30 ⁵³	titulua: 400 ⁵⁴ habilitazioa: 500	200		1.500	3.000
3. hezkuntzan:	40	habilitazioa: 3.000	300		2.000	4.000
1858 ⁵⁵		200				
1878 ⁵⁶		366	200	320 ⁵⁷		
1881 ⁵⁸		21.200 erreal graduak eta matrikula (ezin zuenak doan)				

4. Ikasleek ordaindua azterketak egin ahal izateko eta tituluak jasotzeko (errealetan).

43. A.M.Vi. 35-1-37.

44. A.M.Vi. 37-22-10.

45. A.M.Vi. 53-13-26.

46. A.M.Vi. 37-2-21.

47. A.M.Vi. 37-17-18.

48. Adibidez A.M.Vi. 37-22-10.

49. A.M.Vi. 20-1-31.

50. A.M.Vi. 45-21-20.

51. A.P.A. DAH 140-26. Kopurua juntek ordaintzen dute ikasleko.

52. A.P.A. DAH 22-2.

53. Kopuru hau kurtzoko azterketetan, literaturakoan izan ezik, honetan 20 erreal eta egiaztagiria jasotzeko bakoitzarena beste 20 erreal.

54. Hori erreinu osorakoa tituluari dagokionez; probintziala 200 dira eta lokala 100.

55. A.P.A. DAH 1478-8.

56. A.P.A. DAH 2523-6 (urtarrilaren 11an erabaki zen eta uztailaren 27an bi titulu udalak ordaintzean jasotako informazioa, Eugenio Aranzabal eta Pedro de Landaluceri hurrenez hurren 91 pta. eta 50 zentimo ordaintzean).

57. Nekazari-perituen kasuan.

58. A.P.A. DAH 1952-11. Hau da atribuzio-banaketa egiteko udalak eta diputazioak zuten asmoa, baina gero 1880ko egoerara itzuli ziren.

URTEAK		POBREEK ⁵⁹	BESTEЕК
XVIII. mendean ⁶⁰	Gasteizen: herrietan:		irakurtzeko 1 idazteko 2 kontuak egiteko 3 garitan ⁶¹
1813 ⁶²		doan	1
1822 ⁶³	eskola normalean:	hezkuntza doan	titulua ordaindu edo 16
1845 ⁶⁴	eskola publikoan: eskola pribatuan:	doan baten bat doan	2-6 tartean eta >6 aberatsenek bi kasutan ⁶⁵
1845 ⁶⁶	eskola normalean:		mutikoek: 40 neskek: 30
1860 ⁶⁷	eskola publikoan: eskola pribatuan:	%21,95 Gasteizen %16,63 Araban doan ⁶⁸ inor ez doan	
1867 ⁶⁹		denak	
1877-78 ⁷⁰	eskola normalean: instituan:	maisuenan 80 maistrenean 63,2 ⁷¹ 32 asignaturako irailean (urrian 64) ⁷²	
1889 ⁷³		doan	20

5. Ikasleek ordaindutako matrikulak lehen mailako eskolan (errealak hilean).

59. Bakarrik doan edo beherapenez ordaintzen dutenean adieraziko da; horrelako tratu berezirik ez dagoenean beste zutabea erabiliko da.

60. Landazuriren arabera (Lasa 1968); ikusten denez ikasten denaren arabera banaketa egiten da.

61. Kopuru aldakorrek: hermandadekoek dohainik eta besteek ordainduz (Nanclares eta Huetos-eko kasuetan); edo zelemen bat auzokideko (Artezanan kasu); edo 8-9 anega eskolako umeen artean banaturik (Artoñanan, Ulibarri de Aranan adibidez); edo 24 anega eta dirua umeen artean banaturik (Urizarren kasuan) edo herriaren kolaborazioaz (Corres-en bezalatsu).

62. A.M.Vi. 5-23-37.

63. A.P.A. DAH 22-2

64. A.M.Vi. 5-23-34.

65. Badago kasuren bat 40 erreale ordaintzen dituen ere (!).

66. A.P.A. DAH 1478-8.

67. A.P.A. DAH 1213-9, abenduaren 12an lehen eskola estatistikaren barruan doan ikasten duten umeen kopuruak eta %ak.

68. Datu zehatzetan, Gasteizen 7.621 umetatik 1.673k doan ikasten dute (4.402 mutikotatik 1.045 eta 3.219 neskatotatik 628) eta Araban 12.657 umetatik 2.231 doan (7.325 mutikotatik 1.392 eta 5.332 neskatilatatik 839).

69. A.M.Vi. 43-15-33, baina 1865ean onartu arren, A.M.Vi. 41-9-48an (maisuek 1864an ez onartzea eskatu zuten, A.M.Vi. 41-24-57an).

70. A.P.A. DAH 2523-6 (oso dokumentu zehatza, pertsona agertzen baitira datuak) eta 2562-6.

71. 10 pta. eta 7,90 pta. ko bi epetan ordaindurik, guztira 1877-1878ko sehilabetean 750 pta. eta 240 pta. jasoz hurrenez hurren; 1876-1877 ikasturtekoa 1877-1878ko lehen erdiari gehituta 2.200 pta. eta 847 pta. eta 50 zentimo ematen dituen.

		MUTIKOAK			NESKAK		
		<6	6-9	>9	<6	6-9	>9
GASTEIZ	PUBLIKOAN	940	2.108	1.354	614	1.723	881
	PRIBATUAN	57	87	61	63	114	118
ARABA	PUBLIKOAN	1.445	3.504	2.376	1.026	2.732	1.573

		DENERA			TOTALA
		<6	6-9	>9	
GASTEIZ	PUBLIKOAN	1.554	3.831	2.235	7.621
		%20,39	%50,27	%29,33	
	PRIBATUAN	120	201	179	500
		%24	%40,2	%35,8	
ARABA	PUBLIKOAN	2.461	6.236	3.949	12.657

6. 1860ko ikasle-kopuruak adinez banatuta eskola publiko zein pribatuan, Gasteizen eta orotara Araban⁷⁴.

NESKAK	MUTILAK
358 ondo hezita.	268 lanera.
150 erdizka hezita.	90 beste leku edo eskoletara.
40 hil edo joan.	70 bigarren ikasketetara.
172 geratu.	160 geratu.

7. Ikasleen irteerak 1848-1853 tartean⁷⁵.

e) Irakasten diren gaiak (eta euskara, zer?)

Normalean mende-hasieran herri txikietako maisu askok ez zekiten erderaz ere, baina gerora nagusitua zen gaztelaniaz egindako irakaskuntza. Maisuek behartu egiten zituzten umeak gaztelera ikastera, hiztegi antzeko bat ikasiz. Gainera “eraztunaren sistema” errepresibo ezaguna ere aplikatzen zen (dagoeneko XVIII.etik Lasari (1968) jarraiki). Euskaraz aritzen zen umeari jartzen zitzaion eta umeek elkar zainduz elkarri jarri behar zioten, azkenengo zeukanak egunean edo aste-bukaeran zigorra jasotzen zuelarik (“pedagogikoa” omen zen). Beraz euskara Iturriaga eta antzeko pedagogo gutxi batzuen eskutik bultzatu zen soilik (eta beraz ere Gipuzkoan).

Irakasteko modua beraz, zigorren bidezkoa zen, 1820tik galeraziak izan arren, edo arautegietan aipatzean oso leunak eta “humanitarioak” izan behar zirela esan arren «rigor y disciplina» batzeko «con justicia y humanidad», maisuaren esku geratzen zen aplikazioa eta noski, berak erabakitzen zuen zer zen justizia eta gizatasuna⁷⁶.

72. Guztira 17.064 erreal (4.266 pta).

73. A.M.Vi. C-11-39.

74. A.P.A. DAH 1213-9. Gasteiz esatean hiria eta bere jurisdikzioa sartzen dira. 1860ko erroldan Espainia mailan 670.000 neskato zihoazen eskolara eta bigarren ikasketak egiteko 36.149, goi-mailan 11.375 eta berezietan 7.029.

75. AHVI 35-1-37.

76. Adibidez: A.M.Vi. 20-14-44, 1838ko araudia; 1873ko araudia, A.M.Vi. 20-1-31.

URTEAK		PUBLIKOAN	PRIBATUAN	DENERA
1845 ⁷⁷	eskola osatua, ez-osatua eta gorenean	100 neska eta mutiko osatuan	10 ikasketik 110era	680
1848-		80-120 neska		
1853 ⁷⁸		80-120 mutiko ⁷⁹		
1855 ⁸⁰	Eskola normalean: bere praktikoan: Gorena: oinarrizkoa: neska primarioa: neska bigarrena: parbuloen: helduena ⁸¹ :	80 mutiko 80 neska 110 mutiko 110 neska 80-90 80-90 96 86 155-160 ±80		160 220
1860	(ikus 9. taula)			
1873 ⁸²	mutiko gorena mutiko oinarrizko anpliatuak maisu normalaren praktikoak nesken oinarrizko anpliatuak maistra normalaren praktikoak gau eskola parbulotakoa	100 100 eta 100 ? 90 eta 90 ? 80 gizon ? neska eta mutiko		180
1880 ⁸³	lehen mailakoan bigarren hezkuntzan	% 48 neska % 52 mutiko % 1,16 neska		

8. Ikasle-kopuruak eskolako.

Irakasten zena ohizkoa zen: irakurtzen eta idazten, lau erregelak eta doktrina⁸⁴; honi “hezibide ona” gehitzen zitzaion, baina diziplina zen helburu nagusia eta nagusiei begirune izatea zen nagusiki irakatsi nahi zena. Nesken kasuan aurrekoa (besteek gehiegi ez eman arren ere) eta “bere sexuari egoki zitzaizkion lanak”: josten, brodatzen... Gerora mendea aurrera joan ahala mutikoei ortografia eta gramatika gehituko zaizkie (gaztelaniazkoa noski, 1838tik); historia eta geografia inoiz (bigarren ikasketetan, batez ere), baina hau mendearen

77. A.M.Vi. 5-23-34.

78. A.M.Vi. 35-1-37. 1848 eta 1854an ez dira datu fidagarriak 200etik gora agertzean.

79. Betiere neska gehiago, 10 edo 20 gehiago.

80. A.M.Vi. 37-22-10.

81. 15 urtetik gorakoak.

82. A.M.Vi. 20-1-31.

83. Cf. Dávila 1989, datuak ehunekotan emanda; neskek nagusiki eskola pribatuetan ikasten zuten eta mutikoei publikoetan.

84. A.M.Vi. 5-23-37, Torcuato Torio de la Riva-ren metodoa jarraituz.

bigarren erdialdean parbularioak eta sortu zirenean, azkenean neskengana ere iritsi zelarik. Arautegiak egiten hasi zirenean, gehiago zehazturik agertzen zen irakatsi beharrekoa eta mendearen bigarren erdialdekoetan ordutegi zehatzak ere agertzen dira⁸⁵.

Oso goiz *Bell-Lancaster-en metodoa* hedatu zen⁸⁶, altutik “kantatuz” gauzak buruz ikasteko, eta ikasle “azkarrenek” maisuari lagunduz (besteei irakasten eta lumak eta tinta prestatzen, etabar, etorkizunerako eta batez ere Aro Berrian funtzionaritzarako balioko ziena). Baina metodoen eskasiak, “fede-dogma” eran egiten baitzen, eta ikasleen motibazioa ez lortu izanak desegokiak zirela adierazten digu. Motibazioa bultzatzen saiatzeko, azterketak egiten ziren urtean behin edo bitan, sariak emanaz ikasle onenei (metodo hau astero ere erabiltzen zen eskolaren barruan), baina ez dakigu oso eraginkorra izango zen.

Maisuek irakasle pasanteak ere izango zituzten laguntzeko edo gaixotzean ordezkatzeko, soldata baxuagoaz, baina haien prestaketa are eskasagoa zen, umeentzat onura gehiegi ez zekarrena.

f) Estatistikak eta finantzazioa

Eskolak instituzioek ordaintzen zituzten publikoak zirenean. Horretarako zergak edo jabegoen errentak erabiltzen ziren⁸⁷ eta “obra pía” deitzen zirenak ere gehitzen zaizkio mende ia hasieratik (aberatsek bere jaioterriari dirua horretarako uztea ez da arraroa⁸⁸).

Horrez gain, iristen ez zenez, ikasleek, ahal bazuten hilean ordain sari bat zuten (argiako eskola pribatuetan); eta jada bigarren mailako ikasketetatik gora, matrikula, azterketa eta graduazio-eskubideak ere ordaintzen zituzten. Esan bezala, maisuari bizitokia ere eskaintzen zitzaion, baina jateko iristen ez zitzaionean (ez zen herrietan gutxitan gertatzen), beste ofizio batzuetan aritu beharra izaten zuen.

Urritasunak ahaztu gabe, kontuan hartu beharra daukagu Errestaura-zioan analfabetismoa Espainian % 60-70 tartean zegoenean, Araba probintzia alfabetatuenetakoa zela, % 70 inguruk irakurtzen baitzekien Becerro de Bengoaren esanetan (irakurtzen bakarrik bazen ere); gainera, legez agindu baino eskola gehiago zituen (304, 276ren lekuan) (García de Cortázar et al., 1986) eta populazioko eskola gehien ditu Arabak. Aipagarria da gainera desberdintasunak deserdintasun, emakumeak ia gizonak beste ageri direla alfabetaturik (desberdintasun nabaria Espainiaren aldean) (Dávila 1988).

85. A.M.Vi. 37-25-24, 1857ko arauak.

86. A.P.A. DAH 131-2ren arabera 1819tik.

87. A.M.Vi. 5-22-16, 1818an 44 etxe, 4 ermita eta “propio”enak kasu.

88. Vicente de Lesagak bezala Alda herrian (López de Guereñu 1961) eta A.P.A. DAH 1213-9.

GAIAK	MUTIKOAK	NESKAK
DOKTRINA+IRAKURKETA	4.197	2.924
IDAZKETA	2.717	2.362
ARITMETIKA	2.410	2.048
GAZTELANIAZKO GRAMATIKA	1.624	1.228
NEKAZARITZA	2.315	-
ANPLIAZIOA HEZKUNTZA	520	201
JOSTEA	-	678
KALTZETA	-	326
BRODATZEA+BESTE	-	257

9. Ume-kopurua ikasketako.⁸⁹

2. Ondorioak

Orotara esan dezakegu politikako neurriek eragin zutela irakaskuntzan, baina administrazio-kontuetan batez ere edo neurriren bat beranduago aplikatzean foruen aurkakotzat jotzen bazen. Hala ere, orokorki linealtasuna gorde zen eta esan beharra dago sistema liberala ezartzean aurrerapenak egon baziren ere, ondoren berrikuntzak oso geldoak izan zirela, eta adibidez, jada 1838ko arautegian ezarrita zeudela oinarritzko baldintzak eta betebeharrak eskoletan. Ondorioz, hezkuntza inguruko instituzioetan eragin zuen liberal ala kontserbadoreak egoteak (juntak, gero kontseiluak,...), baina funtsean berdintsua irakasten zitzairen umeei iraultza liberala egin ostean (beti eskas).

Badirudi nahiko eskola zeudela Araban. Maisuen inguruan ezin da gauza bera esan edo, egon arren, beraien prestaketa eskas samarra zen, batez ere mendearen lehen erdialdean eta hiriburutik kanpo. Kontuan harturik zituzten bizi-baldintza eskasak, ulergarria da beraiek ere interes falta nabaria agertzea irakasteen. Ikasleek ez zuten denbora gehiegi egiten eskolan, legeak behartua baino gutxiago gehienetan, gurasoen pobrezia lanera eramaten zituelako.

Ez dugu ahaztu behar metodoak aspergarriak eta irakatsia urria zela, ikasleen interesa sortzeko balio gutxiarekin beraz, haiek eskolara joatea eragotziz. Gainera aurkako neurriak erabili arren eta ikasle onak saritzea erabili nahi zen arren motibazio eran, ematen du zigorra zela motibatzaileagoa, gogorra izatea galarazi arren, irakaslearen esku geratzean neurtzea (eta eraztunarena bezalako sistemekin).

Nesken irakaskuntza bultzatzen doa eta ikasteari erraz uzten zaion arren, datuen arabera Araban mutikoen azpitik baina ia parean daude. Irakaskuntza

89. A.P.A. DAH 1213-9 1860ko abenduaren 12an egindako kalkulua.

desberdindua gordetzen da, mutikoei bezala irakatsiz oinarrian (irakurri, idatzi, lau erregelak...), baina josteari dagozkion ikasketak gehituz.

Finantzazioa beti eskas samarra zen, baina inoiz sobera ere bazen dirurik kutxetan (gezurra badirudi ere), kontuan harturik asignazioak eta irakasle-soldatak ez zirela garestiegiak. Eraikinak alokatuak ziren gehienbat, baina ahal zenean desamortizazioko edo hustutako etxeren bat erabiltzen zen.

Hau guztia ikusita Araba Penintsulako alderik alfabetatuenetakoa izateko, erraz imajina daiteke zein egoeratan egongo ziren beste probintziak.

Azkenik ikusten da eskolaren helburua pertsona gizarte berrian integratzea zela, sistemak hutsune ugari izan arren. Diziplina hartzeari garrantzi handia ematen zitzaion, langileak eta esanekoak izan zitezten. Eskola ere sistematizatu egin zen estatuarekin batera liberalismoaren barruan (Arpal et al. 1982). Ez dugu ahaztu behar doktrinak eta honekin Elizak zeukan garrantzia hezkuntza-sisteman ez zela gutxitu mende osoan zehar, kontrol ideologikoan honek duen garrantzia-rekin.

Bibliografia

Dokumentuak

- Archivo Municipal de Vitoria (A.M.Vi.).
- Archivo Provincial de Alava (A.P.A.), Fondo DAH.
- Sancho el Sabio Fundazioa.

Erabilitako liburuak

- Arpal, J.; Asua, B.; Dávila, P., (1982): *Educación y sociedad en el País Vasco*, Txertoa, Donostia.
- Artola, Miguel (zuz.), (1988): *Enciclopedia de Historia de España*, Alianza, 5, Madril.
- Bujanda, Joxemanuel, (1991): *Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogo aurrerakoia: Agustín Pascual Iturriaga. Hernani 1778-1851*, UEU, Bilbo.
- Colección de la ley, reglamentos, y reales órdenes sobre instrucción primaria, con atribuciones de las comisiones provinciales, locales y deberes de los maestros de escuela*, Ramon Domingo inprimatzailea, Iruñea, 1841.
- Congresos de Estudios Vascos,
1918 *Oñati*
1920 *Iruñea*, Donostia, Editorial y prensa.
1922 *Gernika*
1926 *Gasteiz*
1930 *Bergara*
- Dávila Balsera, Pauli, (1988): *Educación en el País Vasco, el Magisterio y la enseñanza elemental (1857-1930)*, Universitat de Barcelona, Bartzelona.
- , (1989): “Mujer y educación en Euskal Herria, perspectiva histórica”, in *Emakumea Euskal Herriko Historian*.
- García de Cortazar, F.; Montero, M.; Betanzos, J.M., (1986): *Historia de Alava. 2: el Antiguo Régimen y la Edad Contemporánea*, Txertoa, Donostia.
- Guereña, Jean-Louis, (1990): “Escolarización y demanda popular de educación en el último

- tercio del s. XIX”, in *Historia Contemporánea*, Leioa, 3. alea, 199-218.
- Ibañez de la Rentería, José Agustín, (1790): *Discursos que Don Joseph Agustín de la Rentería presentó a la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País en sus Juntas generales de los años de 1780, 81 y 83*, Pantaleón Aznar impresorea, Madril.
- Lasa, J.I. (et. al.), (1968): *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, Auñamendi, Donostia.
- Lopez de Guereñu Galarraga, Gerardo, (1961): *La enseñanza primaria en la montaña alavesa*, Instituto Sancho el Sabio, Gasteiz.
- Luzuriaga, Lorenzo, (1916-1917): *Documentos para la historia escolar de España*, Junta para la Ampliación de Estudios e Investigaciones Científicas, Centro de Estudios Históricos.
- Madoz, Pascual, (1845): *Diccionario Geo-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar*.
- Reboredo Olivenza, José Daniel, (1992): *Escuelas y maestros en Alava (un siglo de formación intelectual de los docentes alaveses, 1830-1930)*, Txertoa, Donostia.
- , (1995): “La organización administrativa de la primera enseñanza decimonónica (1825-1930)”, in *Sancho el Sabio, Euskal kultura eta ikerketa aldizkaria*, 2. garaia, 5. alea, 307-322.
- Rivera Blanco, Antonio, (1992): *La ciudad levítica. Continuidad y cambio en una ciudad del interior (Vitoria, 1876-1936)*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- , (1995): “Del Pasado al Presente: las transformaciones de la vida cotidiana en Vitoria desde el siglo XIX a nuestros días”, in Imizcoz Beunza, J.M. (dir.), *La vida cotidiana en Vitoria en la Edad Moderna y Contemporánea*, 2. ed., Txertoa, Donostia.
- Saenz de Santamaría, Carmelo, (1983): “La educación institucionalizada en el País Vasco en los siglos XVIII y XIX”, in *IX Congreso de Estudios Vascos*, Bilbo.
- San Cristoval, Pedro, (1983): *Educación y cultura: factores de la realidad actual*, Arabako Kutxa, Gasteiz.
- Urabayen Guindoerena, Leoncio de, (1920): *La enseñanza en los pequeños municipios vascos*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Uribe-Etxebarria Flores, Arantza, (1989): “Emakumea eta historiaren irakaskuntza”, in *Emakumea Euskal Herriko Historian*.
- Verastegui, Valentín, (1829): *Entre los medios adoptados por esta Junta Superior desde su instalación, para planificar el plan de Escuelas aprobado por la Provincia, ha sido el de nombrar Visitador*.